



Arartekoaren 2014R-179-14 ebazpena, 2014ko maiatzaren 29koa. Horren bidez Ensanche 21 Zabalgunea S.A. udal-sozietateari gomendatzen zaio pertsona onuradunaren oinordekoei etxebizitza birgaitzeko emandako laguntzengatik zordundutako kopurua ordain diezaiela.

Aurrekariak

- (...)ren oinordekoek erakunde honetara jo dute, Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentziak (ARICH) ez dielako ordaindu (...) kaleko (...) zenbakiko (...) etxebizitzan obrak egiteko diru-laguntza (2011ko 850. zenbakidun espedientea).

Eskaera orduko jabeak egin zuen. 2011ko azaroaren 10ean, ARICHek eskaera ebatzi eta 1002 €-ko diru-laguntza eman zuen, itzuli beharrik gabe. Ebazpenaren arabera, laguntza obraren azken ziurtagiria eta nahitaezko udal-lizentziaren kopia aurkeztu ondoren emango zen.

Obrak amaitutakoan, jabeak hainbat aldiz eskatu zion diru-laguntza hori ARICHi. Hala ere, aitortutako laguntza hori ez zen ordaindu jabea hil zenean, 2013ko otsailean.

Ondoren, egiaztapen egokiak egin ostean, hildakoaren oinordekoek zegozkien kudeaketak egin zituzten, udal-agentzia horrek zordundutako kopurua lortzeko.

ARICH agentzia iraungi zela eta haren aktibo eta pasiboak Ensanche 21 udal-sozietateari laga zitzaizkiola (2013ko urriaren 25ean) jakin ondoren, kopuru hori ordaintzeko eskatu zioten Ensanche 21i.

Erreklamazioan adierazitakoaren arabera, ez dute erantzunik jaso eta horregatik jo dute erakunde honetara.

- Kexa honi tramite egokia emateko asmoz, erakunde honek tramiteei buruzko informazioa eskatu zion Ensanche 21i, aipatu eskaerari erantzun ahal izateko.

2014ko martxoaren 13an, Ensanche 21eko kudeatzailearen informazioa jaso genuen eta gaiari buruzko datuak eman zizkigun. Halaxe azaldu zigun:

2011ko maiatzaren 20an jabeak birgaitzeko (igogailuan obrak egiteko) diru-laguntza eskatu zion Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa Era Integralean Biziberritzeko Agentziari (ARICH).





2011ko azaroaren 10ean, itzuli beharrik gabeko 1002 euroko diru-laguntza ematea ebatzi zen.

Obra amaierako ziurtagiria 2012ko maiatzaren 23an aurkeztu zitzaion Ensanche 21 Zabalgunea S.A. sozietateari.

Bestalde, ARICH sozietateko batzar nagusiak 2012ko apirilaren 27an erabaki zuen aipatu sozietatea desegin eta likidatzea, eta urte horretako abuztuaren 1ean, aktibo eta pasibo guztiak laga zizkion Ensanche 21 Zabalgunea S.A. sozietateari.

2013ko ekainaren 6an Sozietateko Administrazio Kontseiluak ARICH sozietate iraungiaren diru-laguntzak eta laguntzak ordaintzeko baimena eman zuen.

Igorritako txostenean berretsi egin da jabea 2013ko otsailaren 25ean hil zela, diru-laguntza oraindik ordaindu gabe zegoela. Bere oinordekoek idazkia aurkeztu zuten sozietatean, 2013ko urriaren 31n, eta diru-laguntza ordaintzeko eskatu zuten.

Edonola ere, txostenaren arabera sozietateko langileek ahoz esan zieten kexagileei Vitoria-Gasteizen dauden higiezinetan igogailuak instalatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Arauko 5. artikulua honakoa ezartzen duela: *"Laguntza hauen onuradunak titulu pertsonalean arituko dira eta auzokide bakoitzak ordaindutako kopuruen arabera ezarriko dira"*: Era berean, jakinarazi zigutenez, eskatzaileei berehala emango zioten erantzuna azaldutako eran.

Aurrekari horiek eta Ensanche 21ek igorritako informazioa kontuan hartuta, egokia iruditu zaigu honako ebazpena egitea, gogoeta hauen arabera:

Gogoetak

- Erreklamazio honen xedea Ensanche 21 sozietateak emandako erantzun-falta planteatzea da. Izan ere, higiezin bat birgaitzeko obra burutuen zioz zordundutako kopurua ordaintzeko eskatu da eta ez da erantzunik jaso.

Aurrekarietan azaldutako informazioari jarraiki, laguntzak emateko ardura daukan udal-sozietateak 1002 € jasotzeko eskubidea aitortu zion etxebizitzaren jabeari. 2011ko azaroaren 10eko ebazpenaren bidez emandako laguntza hori, zehazki, obren benetako ziurtagiria eta udal-lizentziaren egiaztatzea aurkeztearen



menpe zegoen. Horrenbestez, Ensanche 21ek igorritako informazioaren arabera, berretsi egin daiteke jabeak behar bezala justifikatu zuela birgaitze-obren amaiera 2012ko maiatzean.

Hala ere, ordainketa ez zen gauzatu, onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoen ondorioz. Azaldutako arrazoa ARICH 2012ko apirilean desegin izana eta haren aktibo eta pasiboak Ensanche 21i laga izana (2012ko urrian formalizaturik) izan zen.

Udal-berrantolaketarako prozesu honek atzeratu egin du Ensanche 21ek 2013ko ekainaren 6ra arte baimendu ez zituen diru-laguntza eta laguntzen ordainketa.

Kexagileen kasuan, hau da, etxebizitzaren jabearen oinordekoen kasuan, Ensanche 21ek emandako erantzunean honakoa planteatu da: ea udal-sozietate hori zorrak ordaintzeko orduan atzeratu denez, berrikusi egin behar ote den laguntzen onuradunei eskatutako baldintzen betearazpena.

Kasu honetan baloratu beharreko gaia zera da: oinordekoen subrogazioa, ordaintzeko dagoen kopuruan.

Kasu honetan, azpimarratzekoa da laguntza emateko prozedura jabea bizirik zegoen artean ebatzi eta amaitu dela, laguntza horiek emateko arauan aurreikusitakoaren arabera. Nabarmendu beharra dago, halaber, kexagilearen jasotzeko eskubidea hasi baino hilabete batzuk beranduago hil zela jabea.

Kontuan hartu behar da, bestetik, laguntza ematen duen ebazpena laguntzak jasotzeko eskubidea aitortzen duen eta aitortutako kopurua ordaintzeko betebeharra ezartzen duen egintza bat dela.

Vitoria-Gasteizko diru-laguntzen udal-ordenantzak aurretiazko prozedura bat ezartzen du oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak bete ote diren baloratzeko eta ondorengo fase bat ere zehazten du aitortutako kopuruak ordaintzeko. 18. artikuluan, zehazki, ordenantzak berariaz ezartzen du emakidaren ebazpenak dagokion gastuaren konpromisoa eragiten duela. Onuradunak proiektua egin dela justifikatu duenean egiten da ordainketa, hau da, kasu honetan, obrak egitean, oinarrian ezarritako baldintzetan.

Epe hori igarota, herri-administrazioak eta gainerako menpeko erakunde eta organismoek ordainketa gauzatu eta emandako kopuruak abonatu behar dituzte, atzerapenik gabe.





Kasu honetan, ordainketa egiteko orduan egondako atzerapena ezin zaio egotzi higiezinaren jabeari, diru-laguntza jasotzeko eskubidea aitortuta zuelako, 2012ko maiatzean obren amaierako ziurtagiria aurkeztu ondoren.

Kreditu-eskubide hori, birgaikuntza-laguntzen araudian aurreikusten diren gainerako betebeharrak objektiboekin batera, mortis causa transmititu behar zaie bere oinordekoei, Kode Zibileko arauen arabera.

Ondorioz, laguntzen izaera pertsonala dela eta onuradunek baldintza batzuk egiaztatu behar dituzte oinarri arautzaileen arabera eta laguntzaren azken jomugari buruzko betebeharrak bete behar dituzte. Prozedura hori amaitzean, hau da, laguntzaren emakida ebatzi eta baldintzak betetzean, diru-laguntza ordaindu egin behar da. Zor hori ordaindu ezean ordainketa-betebeharra kreditu-eskubidea bihurtzen da onuradunarentzat eta mortis causa transmititu daiteke, zuzenbideko oinarrien arabera.

Hori guztia kontuan hartuta, birgaikuntzarako laguntza emateko prozedura honi buruz hausnartu beharko litzateke, pertsona onuraduna hiltzen den kasuetarako.

Laguntza emateko prozedura amaitutakoan eta birgaikuntza-obrak burutu eta ziurtagiria igorritakoan, ordainketa-betebeharra, lehen azaldu dugun bezala, transmititu daitekeen kreditu-eskubide gisa bete behar da.

Diru-laguntza aitortzen duen ebazpena badago eta birgaikuntza-obren amaierako ziurtagiria edo oinarrietan aurreikusitako beste baldintzaren bat aurkezteko badago, administrazio eskudunak berariazko aurreikuspen bat ezarri behar du pertsona onuradunaren aldaketa baimentzeko. Araudi horretan, gainera, zehaztu egin behar dira aurkeztu beharreko agiriak eta eskatu behar diren baldintzak, diru-laguntzak arautzen dituen araudia bete dela egiaztatzeko.

Egoera hori Vitoria-Gasteizko etxebizitzak eta egoitza-erakinak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen arauan jasota dago. 2012ko urrian onartutako arau horretako 6. artikulua, zehazki, honakoa ezartzen du: *"Obrak martxan dauden bitartean laguntzak emateko baloratutako baldintzak edo bertako kontzeptu edo partidak aldatzen badira edota laguntzen titularraren nortasuna aldatzen bada, ebazpena egoera berrietara egokitu beharko da, pieza berezia tramitatu ondoren"*.

Azkenik, laguntzen prozedura tramitazio-fasean balego, administrazioak ebazteko zain, pertsona eskatzailea hiltzeak espedientea itxi eta artxibatu beharko luke, pertsona interesdunek egindako eskaera berriari kalterik eragin gabe.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Ensanche 21 udal-sozietateak (...)ren oinordekoei ordain diezaiela zor dien kopurua, birgaikuntzarako laguntza legez, 1002 eurotan, gehi ordainketa-betebeharra aitortu denetik sortutako interesak.

